

aza.

Edorta Jimenez, berriz ere gurean Kresala eta ustelkeria zaporeko eleberri beltza



10 urte igaro dira jada *Stock 13* polemikoa argitara eman zuenetik, eta ordutik hona, 2010ean *Haragizko amoreak* (Susa) poesia-bilduma salbu, literaturan berezko sorkuntza lanik ez diogu ezagutzen Edorta Jimenez idazle bizkaitarrari. Denbora honetan, Hemingwayren inguruko proiektu handi batean eta Euskal Memoriaren urteroko argitalpenetan ibili da buru belarri sartuta eta, horiez gain, hamaika irakurketa egin, hamaika teoria asmatu eta hamaika ideia makinatu ditu. Horien fruitu dira *Ostaddirak lurra ukitzen duen lekua* eleberri beltza, zeinak (h)ilbeltza bekan aurkeztutako laginean baitauka jatorri eta oinarria. Fikzioaren bidezidorrez baliatuta eta ohiko estilo salatian, azken urteotan Euskal Herrian bizi izan ditugun hainbat gai jorratzen ditu Edorta Jimenezek, tortura, poliziaren indarkeria edo zenbaitzuen ustelkeria kasu.

EDORTA JIMENEZ

Ostaddirak lurra ukitzen duen lekua

Eleberri beltza

Txalaparta

340 or.

19,80 € (inguru)

15,84 € Klub



Aldaketa urriaren 25a baino lehen

Mak ertzain jubilatua Arkauten ikasle izan zuen Gaztelurekin urtebetetzea ospatzen ari da. Bien urtebetetzea, biak egun berean jaiok baitira, bost urteko tartearekin; abuztuaren 6an, 1945ean Hiroshiman bonba jaurti zuten horrexetan hain zuzen. Ospakizuna itsasoan egitea deliberatu dute, Maken *Amets Bi* ontzian, hegaluzeak arrantzatu egiten dituzten bitartean. Horretan ari direla, Barne Kontseilari ohiaren txaleta zaintzeko zeuden hiru artzain alemanen desagerketa ikertzeko laguntza eskatuko diote ertzain jubilatuari, zenbait urte lehenago Bizkaia al-

dean izan zen zakur-borroka apustuen kasua argitu zuenez gero. Zakurren desagerketa ikertu ahala, mamu zaharrak agertuko zaizkio Maki; garai latzetan hartutako erabakien damuek habia egingo dute ertzain zaharraren gogoan. AVCS izan zenean egindako estolda lanek oraina hankaz gora jartzera etorriko dira, eta haiekin batera helduko dira errua, damua eta samina. Azken hiru sentimendu hauek dira Edorta Jimenezen eleberri beltz honetako ardatzak eta haiekin batera, tortura, ustelkeria, biolentzia, sexua eta maitasuna.

“Edorta Jimenez bere nobelek bilakatu dute gure idazle preziatuenetarikoa bat. Halaber, kresal usaineko idatziek eman badiote ere mundakarrari merezi duen itzala, Bilbo hurbilaren itzalpeko kale giroa hark beza-la islatzen duenik literaturgile guti dugu gure artean”

JAVIER ROJO

“Euskarazko idazle oparo eta ausar-tenetakoa da Edorta Jimenez. Poesia, eleberriak, narrazio liburuak, kronikak, saiakerak, biografiak, haur literatura edota memoria erotikoak argitaratu izan ditu, euskal literatura garaikideak eman duen idazle emankorrenetakoa bihurtzeraino”

IGOR ESTANKONA

“Edorta Jimenezen lanek genero-literaturaren indarra agertzera erakusten badute ere, idazlea saiatzen da generoetatik urruntzen, eta pertsonaiak baino gehiago giroak osatzen eta gaiari berebiziko indarra ematen”

JON KORTAZAR



Edorta Jimenez Ormaetxea Mundakan jaio zen, 1953an. Elektronika arloko LH ikasketak eta Irakasle Eskolakoak egin zituen, Euskal Filologia adarrean. Hainbat lanbidetan ibilia da: marinel, irakasle, telebista- eta zinema-gidoilari, itzultzaile eta kazetari. Idazten aspaldi hasi zen eta literaturari erabat emana dauka bere jarduna eta euskal literatura garaikidearen idazlerik oparoenetakoa dugu. Hogeita hamarretik gora liburu argitaratu ditu eta genero guztiak jorratu ditu: haur eta gazte literatura (*George L. Steer. Gernikan izan zen kazetaria*), kronika (*Europako mugetan barrena*), saiakera (*Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan*), ipuingintza (*Laudanoa eta sutautsa*), eleberrigintza (*Piztien itsasoa trilogia, Stock 13*) eta poesia (*Haragizko amoreak*), azken hau Omar Nabarro heteronimoarekin.

Hainbat hizkuntzetara itzuli izan dira Jimenezen obrak. Gaztelaniara ez ezik italierara (*La voce delle balene, L'ultimo fucile*) eta alemanierara (*Der Lähm der Grillen*). Gaztelaniara egindako itzulpenen artean aipagarria da Argentinan argitaratu zen *El año del tifus*, azken mende erdian bederen, euskaratik gaztelarrera bertan itzuli eta bertako espainolez argitaratu den lehen liburua.

LIBURUAREN PASARTEAK

Athletic aurrera Europan.

Bielsa zen guztien ahoetan zebilen izena.

Poz aparretan, inoiz hautatu beharko ez zukeen kalea hautatu zuen.

Zeren herriko tabernan txolopote ikusgarria zegoen.

Eskopetetan jarrita zeuzkaten pilotak jaurtitzeko ahokoak.

Ez zuen ulertzen.

Danbadak eta ke-poteak. Keak hedatu batera aldarririk lehertu zirenean bere burua menderatzen sekulako ahalegina egin behar izan zuen. Ez urreratzeko. Eta, hara hor, anbulantziak uluka.

Biharamunean Iñigo Cabacas nor zen irakurri zuen.

Kafeak ez zion onik egin.

Larri sentitu zen.

Orain dagoen bezain.

[...]

Txapelokerrez oroitzeak pittin bat larritu du. Ez zuen uste izango bertokoekin hain gogorra izango zenik. Torturak ez du inongo made in zerik. Zirimiriaren zirrikitutetatik ingurua aztertu du.

Errepideak eratzen duen bihurgune luzearen goiko aldeetan diren eukaliptoetako usainaz eta hezetasunez kargaturik datorkio isiltasuna.

Langile teknifikatuak, grebak, leherketak!; langile teknifikatuagoak, manifestuak, agiriak, manifik, heriotzak!; ingeniariak eta goi mailako teknikariak, erreaktoreen etorrera, agiriak, manifestuak, manifik, leherketak, bahiketa, manifestazioak, heriotza!

Heriotzak: Alvarez, Baños, Alvarez (bis), Ryan, Múgica.

Sugea eta aizkora, otu zaio.

Errepidea ikustean burutik kendu ezin duen sugearen irudiak ekarritako ideia-azoziazioa ote den pentsatu du.

[...]

EGILEAREN LIBURU GEHIAGO

Piztien itsasoa trilogia

Eleberrri historikoak



Baleen barbaroa

Txalaparta
269 orrialde


14,40 €
13,68 € Klub



Sukar ustelaren urtea

Txalaparta
404 orrialde


15,45 €
14,68 € Klub



Azeria eta lehoia

Txalaparta
380 orrialde

18,55 €
17,63 € Klub



San Fermingway

Ensayo
Txalaparta
412 páginas

19,60 €
18,62 € Klub



Stock 13

Narratiba erotikoa
Txalaparta
117 orrialde

16,26 €
15,44 € Klub



Europako mugetan barrena

Narratiba
Txalaparta
350 orrialde

15,45 €
15,44 € Klub